

ITZULPENA¹

Araua: 2006/22/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,
2006ko martxoaren 15ekoa, errepide bidezko garraio-jarduerei buruzko gizarte-legerian Kontseiluaren 3820/85 (EEE) eta 3821/85 (EEE) Erregelamenduak aplikatzeko gutxieneko baldintzei buruzkoa, eta Kontseiluaren 88/599/EEE Zuzentaraua indargabetzen duena.
(Testu egokia EEeri dagokionez)

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik; itzulpenak ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «*DIRECTIVA 2006/22/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 15 de marzo de 2006 sobre las condiciones mínimas para la aplicación de los Reglamentos del Consejo (CEE) nº 3820/85 y (CEE) nº 3821/85 en lo que respecta a la legislación social relativa a las actividades de transporte por carretera y por la que se deroga la Directiva 88/599/CEE del Consejo*» (Diario Oficial de la Unión Europea, L 102 de 11/4/2006)

**2006/22/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,
2006ko martxoaren 15ekoa,**

**errepide bidezko garraio-jarduerei buruzko gizarte-legerian Kontseiluaren 3820/85 (EEE) eta
3821/85 (EEE) Erregelamenduak aplikatzeko gutxieneko baldintzei buruzkoa, eta Kontseiluaren
88/599/EEE Zuzentaraua indargabetzen duena.**

(Testu egokia EEEri dagokionez)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR
BATASUNEN KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzen duen Tratatuaren —bereziki
Tratatuaren 71. artikuluan 1. atala— aztertu dute,

baita Batzordearen proposamena ere,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena
aztertu dute¹,

Eskualdeetako Komiteari kontsulta egin diote
aurretik,

Tratatuaren 251. artikuluan² (2) ezarritako
prozedurari jarraiki, Adiskidetzeko Komiteak
2005eko abenduaren 8an onarturiko testu bateratua
aztertuta,

Honako hauek kontuan hartuta:

(1) Kontseiluaren 3820/85 (EEE) Erregelamendua —
1985eko abenduaren 20koa, errepide bidezko
garraioaren sektorean gizarte-arloko zenbait xedapen
bateratzeari buruzkoa³—, 3821/85 (EEE) —1985eko
abenduaren 20koa, errepide bidezko garraioaren
sektoreko kontrol-aparatuari buruzkoa⁴—, eta
Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren
2002/15/EE Zuzentaraua —2002ko martxoaren
11koa, errepide bidezko garraioan jarduera

¹ EO C 241 2004.9.28koa, 65. or.

² Europako Parlamentuaren Zuzentaraua, 2004ko apirilaren
20koa (EO C 104 E 2004.4.30koa, 38. or.), Kontseiluaren
Jarrera Bateratua, 2004ko abenduaren 9koa (EO C 63 E
2005.3.15koa, 1. or.) eta Europako Parlamentuaren Jarrera,
2005eko apirilaren 13koa (EO C 33 E 2006.2.9koa, 415.
or.). Europako Parlamentuaren legegintzako ebazpena,
2006ko otsailaren 2koa, eta Kontseiluaren Erabakia, 2006ko
otsailaren 2koa.

³ EO L 370 1985.12.31koa, 1. or. Europako Parlamentuaren
eta Kontseiluaren 2003/59/EE Zuzentarauak (EO L 226
2003.9.10koa, 4. or.) aldatu zuen Erregelamendua.

⁴ EO L 370 1985.12.31koa, 8. or. Azken buruan
Batzordearen 432/2004 (EE) Erregelamenduak (EO L 71
2004.3.10koa, 3. or.) aldatu zuen Erregelamendua.

mugikorrek egiten dituzten pertsonen laneko denbora
antolatzeari buruzkoa⁵—, garrantzitsuak dira
errepideko, trenbideko eta barne-nabigazioko
garraioaren merkatu bateratu bat egiteko, bideko
segurtasunerako eta lan-baldintzetarako.

(2) Liburu Zurian, «Europako garraioen politika
2010erako: egiaren garaia» izenekoan, Batzordeak
adierazi zuen kontrolak eta zigorrak gogortzeko
premia zegoela —batez ere errepide bidezko
garraioaren gizarte-legerian—, eta, bereziki, kontrol-
kopurua gehitu behar zela, Estatu kideen arteko
informazio-truke sistematikoa sustatu behar zela,
ikuskapen-jarduerak koordinatu behar zirela eta
kontrolatzaileen prestakuntza bultzatu behar zela.

(3) Beraz, errepide bidezko garraioari buruzko
gizarte-araudia behar bezala aplikatzen dela eta
interpretazio bateratua dagoela bermatu behar da.
Horretarako, gutxieneko baldintza batzuk ezarri behar
dira, Estatu kideek kontrol uniforme eta eraginkorrak
egin ditzaten, dagozkien xedapenak betetzen diren
jakiteko, eta xedapen horiek zigorrak gutxitzeko eta
prebenitzeko balio behar dute. Gainera, arrisku-maila
handiko enpresak gertuagotik eta maizago
kontrolatuko direla bermatuko duen mekanismo bat
erabili behar da.

(4) 2002/15/EE Zuzentarauak gidaria nekatuta
dagoela-eta sor daitekeen arriskuari aurre egiteko ere
balio behar du.

(5) Zuzentarau honetan aurreikusitako neurriek ez
dute bideko segurtasun handiagoa bakarrik eman
behar, Erkidego barruan lan-baldintzak bateratzen eta
bidezko lehia sustatzen ere lagundu beharko lukete.

(6) Takografo analogikoaren ordez takografo digitala
jarrita, gero eta datu gehiago egiaztatu ahal izango
dira azkar eta zehatzago. Horrela, Estatu kideek
kontrol gehiago egin ahal izango dituzte, gero eta
maizago. Kontrol-kopuruari dagokionez, gizarte-
legeriaren aplikazio-eremuaren barruan sartzen diren

⁵ EO L 80 2002.3.23koa, 35. or.

ibilgailuetako gidarien lanaldien kontrola % 4 hazi beharko da pixkanaka-pixkanaka.

(7) Kontrol-sistemen kasuan, Europako elkarreragingarritasuna eta aplikagarritasuna lortu nahi duten konponbide nazionalak garatu behar dira.

(8) Kontrol-agintari guztiak izan behar dituzte beren egitekoak behar bezala eta eraginkortasunez egin ahal izateko ekipo estandarra eta dagozkien lege-eskumenak.

(9) Europar Batasuneko kide guztiak saiaturiko dira errepideko kontrolak azkar eta zuzen egiten, kontrolak ahalik eta arinen egiteko eta gidariak atzerapen handirik ez izateko; nolana ere Zuzentarau honek ezartzen dituen zereginak behar bezala beteko dira.

(10) Estatu kide guztietan Batasuneko harremanetarako erakunde bakarra ezarri behar da, gainerako agintari eskudunekin harremanetan egoteko. Gainera, erakunde horrek dagozkion estatistikak egin beharko ditu. Estatu kideek betearazpen-estrategia nazional koherentea ere ezarri beharko dute beren lurraldeetan, eta erakunde bakarra izendatu ahal izango dute strategiaren aplikazioa koordinatzeko.

(11) Estatu kideetako kontrol-agintarien lankidetzak bitarteko hauekin gauzatu da: kontrol adostuak, prestakuntza-ekimen bateratuak, informazio-truke elektronikoa eta ezagutzen eta esperientziaren trukea.

(12) Komeni da errepide bidezko garraioko kontrol-neurrietan jardunbide egokiak ezartzen laguntzea eta bultzatzea, batez ere ikuspuntu bateratua bermatzeko, gidarien urteroko oporrei edo gaixotasun-bajei buruzko probari dagokionez, Europar Batasuneko kontrol-agintariak bilduko dituen foro baten bitartez.

(13) Zuzentarau hau ezartzeko beharrezko neurriak Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakiaren arabera hartuko dira. Erabaki horrek ezartzen ditu Batzordeari egotzitako betearazteko eskumenak betetzeko prozedurak¹.

(14) Zuzentarau honen helburua da 3820/85 (EEE) eta 3821/85 (EEE) Erregelamenduak eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko martxoaren 15eko 561/2006 (EEE) Erregelamendua —errepide bidezko garraioaren sektorean gizarte-arloko zenbait xedapen bateratzeari buruzkoa, Kontseiluaren 3821/85 (EEE) eta 2135/98 (EE) Erregelamenduak aldatu eta 3820/85 Erregelamendua² indargabetzen duena—, zuzen eta berdin aplikatuko direla kontrolatzeko gutxieneko baldintzei buruz Batasunak araudi bat ezar dezala. Estatu kideek helburu hori behar bezala lortu ezin dutenez, eta, gainera, jarduera transnazional koordinatua egotea beharrezkoa denez, Batasunak neurriak hartu ahal izango ditu Trataturako

5. artikuluan jasotako subsidiarioritasun-printzipioaren arabera. Artikulu horretan adierazitako heinekotasunaren printzipioaren arabera, Zuzentarau honek ez du beharrezkoa baino haratago joko helburu hori lortzeko.

(15) Komeni da, beraz, Kontseiluaren 88/599/EEE Zuzentaraua³ (3) -3820/85 (EEE) eta 3821/85 (EEE) Erregelamenduak aplikatzeko prozedura uniformeek buruzkoa— indargabetzea.

HONAKO ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Helburua

Zuzentarau honen helburua da 3820/85 (EEE) eta 3821/85 (EEE) Erregelamenduak ezartzeko gutxieneko baldintzak finkatzea.

2. artikulua

Kontrol-sistemak

1. Estatu kideek kontrol erregular eta egokien sistema bat prestatuko dute, eta behar bezala eta koherentziaz ezarriko dute, 1. artikuluan jasotakoaren arabera, bai errepidean, bai garraioko kategorian guztietako enpresen lokaletan.

Kontrol horiek egingo zaizkio urtero 3820/85 (EEE) eta 3821/85 (EEE) Erregelamenduetan jasota dauden garraio-kategoria guztietako langile mugikorren, gidarien, enpresen eta garraio-ibilgailuen kopuru zabal eta adierazgarri bati.

Estatu kide bakoitzak bermatuko du kontrol koherentea estrategia nazional bat ezar dadila bakoitzaren lurraldean. Helburu horrekin, Estatu kideek erakunde bat izendatu ahal izango dute, 4. eta 6. artikuluei jarraiki abian jarritako ekintzak koordinatzeko, eta, erakunde izendatuz gero, horren berri emango zaio Batzordeari eta gainerako Estatu kideei.

2. Baldin eta oraindik halakorik ez bada egin, beranduenera ere 2007ko maiatzaren lehen, Estatu kideek bidezko lege-eskumenak emango dizkiete kontrol-funtzionarioei, Zuzentarau honi jarraiki agindu zaizkien ikuskaritza-lanak behar bezala egin ahal izateko.

3. Estatu kide bakoitzak kontrolak egingo ditu, eta, 2006ko maiatzaren lehen aurrera, 3820/85 (EEE) eta 3821/85 (EEE) Erregelamenduetan jasotako ibilgailuetako gidarien lanaldien % 1 kontrolatuko dute. Ehuneko hori % 2ra igoko da gutxienez 2008ko

¹ EO L 184 1999.7.17koa, 23. or.

² EO L 102 2006.4.11koa, 1. or.

³ EO L 325 1988.11.29koa, 55. or. 2135/98 (EE) Erregelamenduak (EO L 274 1998.10.9koa, 1. or.) aldatu zuen Zuzentaraua.

urtarrilaren 1etik aurrera, eta % 3ra gutxienez 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera.

2012ko urtarrilaren 1etik aurrera, Batzordeak % 4ra igo ahal izango du gutxieneko ehuneko hori, 12. artikuluan, 2. atalean, jasotako prozeduraren arabera, baldin eta 3. artikulua arabera egindako estatistikek frogatzen badute kontrolatuta dauden ibilgailu guztien % 90ek baino gehiagok, batez beste, badutela takografo digitala. Erabaki hori hartzean, Batzordeak kontuan izango du aplikazio-neurrien eraginkortasuna, enpresen lokaletan takografo digitalen datuak badauden batez ere.

Lanaldi guztien % 15 gutxienez errepideetan kontrolatuko dira, eta % 30 gutxienez enpresen lokaletan. 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera, lanaldi guztien % 30 gutxienez errepidean kontrolatuko dira, eta % 50 gutxienez enpresen lokaletan.

4. 3820/85 (EEE) Erregelamenduaren 16. artikuluko 2. atalaren arabera, Batzordeari aurkeztutako informazioan honako datu hauek egongo dira, besteak beste: errepidean kontrolatutako gidari-kopurua, enpresen lokaletan egindako kontrol-kopurua, kontrolatutako lanaldi-kopurua, egondako arau-hauste kopurua eta motak, eta garraioa bidaiarientzako edo salgaiena ote zen.

3. artikulua

Estatistikak

Estatu kideek bermatuko dute 2. artikuluko 1. eta 3. atalen arabera egindako kontroletan jasotako estatistikak honako kategoria hauetan banatuta egon daitezela:

a) errepideko kontrolak:

- i) errepide-mota —hau da, autobidea, errepide nazionala edo bigarren mailako errepidea ote den—, eta ikuskatutako ibilgailuaren matrikulazio-herrialdea, bazterketarik ez egoteko
- ii) takografo-mota (analogikoa edo digitala);

b) lokaletako kontrolak:

- i) garraioaren jardueraren mota: nazioartekoa edo nazionala, bidaiarientzako edo salgaiena, norbere konturakoa edo besteren konturakoa,
- ii) enpresako ibilgailuen parkearen tamaina,
- iii) takografo-mota (analogikoa edo digitala).

Estatistika horiek bi urtez behin aurkeztuko zaizkio Batzordeari, eta txosten batean argitaratuko dira.

Estatu kideetako agintari eskudunek aurreko urtean jasotako datuen kopia hartuko dute.

Gidarien ardura duten enpresek jasoko dituzte kontrol-agintariak gidariei enpresako lokaletan eta/edo errepidean egindako kontrolei buruzko dokumentuak, aktak eta beste hainbat datu.

a) eta b) letretan aipatutako kategorien definizioei buruz argibide osagarriak behar izanez gero, Batzordeak eman beharko ditu, 12. artikuluan, 2. atalean jasotako prozeduraren arabera.

4. artikulua

Errepideko kontrolak

1. Errepideko kontrolak hainbat tokitan eta edozein garaitan egin beharko dira, eta errepide-sareko tarte zabalak hartuko dira, kontrol-puntuak saihestea zaila izateko.

2. Estatu kideek ardura hauek hartuko dituzte:

a) neurriak hartuko dituzte dagoeneko badauden errepideetan eta egitekotan diren bideetan, edo horietatik gertu, kontrol-puntuak jartzeko, bai eta, beharrezkoa izanez gero, gasolindegia eta autobideen ondoan dauden beste toki seguru batzuk kontrol-puntu izateko ere;

b) kontrolak txandaketa-sistema aleatorio baten arabera egingo dituzte, eta oreka geografiko egokia lortzeko ardura hartuko dute.

3. I. eranskinen A zatian ezarritako alderdiak frogatu beharko dira errepideko kontroletan. Egoeraren arabera, berariazko elementu baten kontrolak egin ahal izango dira.

4. Errepideko kontrolak egitean, kontrolatzaileek ez dute bazterketarik egin beharko honako alderdi hauei dagokienez —nolanahi ere, 9. artikulua 2. atalean ezarritakoa beteko da—:

a) ibilgailua matrikulatuta dagoen herrialdea;

b) gidaria bizi den herrialdea;

c) enpresa kokatuta dagoen herrialdea;

d) ibilbidearen hasierako eta bukaerako herrialdeak;

e) takografo-mota (analogikoa edo digitala).

5. Kontrolatzaileek honako elementu hauek jasoko dituzte:

a) bereziki kontrolatu beharko dituzten alderdien zerrenda bat, I. eranskinen A zatian ezarritakoaren arabera;

b) kontrol estandarreko ekipo jakin bat, II. eranskinen ezarritakoaren arabera.

6. Estatu kide batean, errepideko kontrol batean beste Estatu kide batean matrikulatutako ibilgailu bateko gidariak arau-haustea egin duela uste bada, baina

kontrolean ezin bada frogatu beharrezko elementuak falta direlako, bi estatuetak agintari eskudunek laguntza emango diote elkarri, egoera argitzeko.

5. artikulua

Kontrol adostuak

Urtean sei aldiz gutxienez, Estatu kideek errepideko kontrol adostuak egingo dizkiete 3820/85 (EEE) eta 3821/85 (EEE) Erregelamenduetan jasota dauden gidari eta ibilgailuei. Kontrol horiek aldi berean egin beharko dituzte bi Estatu kideetako edo gehiagotako kontrol-agintariek, bakoitzak bere lurraldean.

6. artikulua

Enpresen lokaletako kontrolak

1. Garraio- eta enpresa-motei dagokienez, edukitako esperientzia kontuan hartuta egin beharko dira kontrolak enpresen lokaletan. Horrez gain, lokaletako kontrolak egingo dira, errepideetan 3820/85 (EEE) edo 3821/85 (EEE) Erregelamenduetako arau-hauste larriak egin direla frogatzen bada.

2. Lokaletako kontrolen barruan egongo dira I. eranskinaren A eta B zatietan jasotako alderdiak.

3. Kontrolatzaileek honako elementu hauek jasoko dituzte:

a) bereziki kontrolatu beharko dituzten alderdien zerrenda bat (I. eranskineko A eta B zatietan ezarrita daude);

b) kontrol estandarreko ekipo bat, II. eranskinean ezarritakoaren arabera.

4. Estatu kide bateko kontrolatzaileek kontuan izango dute, kontrola egiten ari diren bitartean, beste Estatu kide batek izendatutako kontrolen lotura-erakundeak emandako informazioa, Estatu kide horretako enpresaren jardueri buruzkoa. Lotura-erakundea 7. artikulua 1. atalean azaltzen da.

5. Agintari eskudunek beren lokaletan egindako kontrolak —agintari horiek eskatuta enpresek bidalitako dokumentu edo datuetan oinarrituta egindako kontrolak— enpresen lokaletan egindako kontrolen parekotzat hartuko dira, 1. eta 4. atalak betez.

7. artikulua

Batasunaren barruko lotura

1. Estatu kideek erakunde bat izendatuko dute, eta erakunde horrek honako zeregin hauek izango ditu:

a) 5. artikuluari jarraiki abian jarritako ekintzetan, beste Estatu kideetako erakunde baliokideekin koordinazioa egon dadila bermatzea;

b) bi urtez behingo estatistika-datuak Batzordera bidaltzea, 3820/85 (EEE) Erregelamenduko 16. artikuluko 2. atalaren arabera;

c) beste Estatu kide batzuetako agintari eskudunei laguntza emateko ardura nagusia izatea, 4. artikuluko 6. atalean xedatutakoaren arabera.

Erakunde honek ordezkaritza izango du 12. artikuluko 1. atalean azaltzen den Komitean.

2. Estatu kideek Batzordeari jakinaraziko diote izendatu dutela erakunde hori, eta Batzordeak horren berri emango die gainerako Estatu kideei.

3. Estatu kideek elkarri datuak, esperientzia eta ezagutza ematea sustatuko da, 12. artikuluko 1. atalean azaltzen den Komitearen bitartez batez ere, bai eta Batzordeak izendatu ahal izango duen edozein erakunderen bitartez ere, 12. artikuluko 2. atalean azaltzen den prozeduraren arabera.

8. artikulua

Informazio-trukea

1. Herrialde batek besteari eman diezaiokkeen informazioa —informazio hori aurreikusita dago 3820/85 (EEE) Erregelamenduko 17. artikuluko 3. atalean eta 3821/85 (EEE) Erregelamenduko 19. artikuluko 3. atalean— izendatutako erakundeen artean trukatu da. Erakundeak jakinaraziko zaizkio Batzordeari, 7. artikuluko 2. atalaren arabera, honako kasu hauetan:

a) gutxienez, sei hilabetean behin, Zuzentarau hau indarrean sartzen den unetik hasita;

b) banakako kasuetarako, Estatu kide batek berariaz eskatzean.

2. Europar Batasuneko estatuak sistemak sortzen saiatuko dira, informazio-truke elektronikoa egoteko. 12. artikuluko 2. atalean azaltzen den prozeduraren arabera, Batzordeak metodologia komun bat zehaztuko du, informazio-truke eraginkorra egoteko.

9. artikulua

Arriskuak sailkatzeko sistema

1. Estatu kideek enpresen arriskuak sailkatzeko sistema bat osatuko dute, enpresa bakoitzak 3820/85 (EEE) edo 3821/85 (EEE) Erregelamenduetan egindako arau-hausteen kopuru erlatiboa eta larritasuna oinarri hartuta. Batzordeak Estatu kideen arteko elkarriketa bultzatuko du, arriskuak sailkatzeko sistemen artean koherentzia egon dadila sustatzeko.

2. Arrisku handiko sailkapenean dauden enpresek kontrol zorrotzagoak izango dituzte, eta maizago, gainera. 12. artikuluan aipatutako Komiteak

eztabaidatuko ditu sistema hori ezartzeko irizpideak eta bitartekoak, jardunbide egokiei buruzko informazioa trukatzeko sistema ezartzeko.

3. III. eranskinean ezarrita dago 3820/85 (EEE) eta 3821/85 (EEE) Erregelamenduetako arau-hausteen hasierako zerrenda.

3820/85 (EEE) eta 3821/85 (EEE) Erregelamenduetako arau-hausteen larritasuna neurtzeko arauak emateko, beharrezkoa izanez gero, Batzordeak III. eranskina erabili ahal izango du, 12. artikuluko 2. atalean jasotako prozeduraren arabera, arau-hausteen eskala bateratu bati buruzko arauak ezartzeko. Eskala kategoriatan banatuko da, arau-haustearen larritasunaren arabera.

Arau-hauste larrienen kategorian sartu beharko dira 3820/85 (EEE) eta 3821/85 (EEE) Erregelamenduetako xedapenak ez betetzeagatik hiltzeko arrisku handia edo gorputzeko lesio larriak sortzen dituztenak.

10. artikulua

Txostena

Beranduenera ere 2009ko maiatzaren 1ean, Batzordeak txosten bat aurkeztuko die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari, eta bertan aztertuko dira Estatu kideek arau-hauste larriei buruz dituzten legedietan aurreikusitako zigorrak.

11. artikulua

Jardunbide egokiak

1. Batzordeak arauak egingo ditu kontrol-arloko jardunbide egokiei buruz, 12. artikuluko 2. atalean aurreikusitako prozeduraren arabera.

Arau horiek Batzordearen bi urtez behingo txostenean argitaratuko dira.

2. Gutxienez urtean behin, Estatu kideek jardunbide egokiei buruzko prestakuntza-programa bateratuak jarriko dituzte abian, eta beste Estatu kideetako erakunde baliokideekin pertsonal-trukea egiteko laguntza emango dute, Batasuneko loturarako erakundeetan.

3. Batzordeak inprimaki bat egingo du, formatu elektronikoa eta inprimatzeko moduan, 12. artikuluko 2. atalean ezarritako prozeduraren arabera. Inprimaki hori erabiliko da gidaria bajan egon bada gaixotasunen batengatik edo oporretan egon bada, edo, bestela, 3820/85 (EEE) Erregelamenduaren aplikazio-eremutik kanpora dagoen beste ibilgailu bat gidatu badu, 3821/85 (EEE) Erregelamenduko 15. artikuluko 7. ataleko lehen paragrafoko lehen puntuan aipatutako denbora-tartean.

4. Estatu kideek bermatuko dute kontrolatzaileak ondo prestatuta egon daitezela, dagozkien zereginak egiteko.

12. artikulua

Komitearen prozedura

1. Batzordeak Komitearen laguntza izango du, eta Komite hori 3821/85 (EEE) Erregelamenduko 18. artikuluko 1. atalaren arabera eratuta egongo da.

2. Atal hori aipatzen den kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5. eta 7. artikulua ezarriko dira, eta 8. artikuluan xedatutakoa ere kontuan hartuko da. 1999/468/EE Erabakiko 5. artikuluko 6. atalean azaltzen den epea hiru hilabetekoa izango da.

3. Komiteak erabakiko du bere barne-araudia.

13. artikulua

Aplikazio-neurriak

Estatu kideren batek eskatuta edo bere ekimenez, 12. artikuluko 2. atalean ezarritako prozeduraren arabera, Batzordeak aplikazio-neurriak hartuko ditu honako helburu hauetako batekin:

a) ikuspuntu bateratu bat sustatzea, Zuzentarau hau ezartzeko;

b) kontrol-agintarien artean ikuspuntu koherentea egon dadila eta kontrol-agintariak 3820/85 (EEE) Erregelamenduaren interpretazio bateratua egin dezatela sustatzea;

c) elkarrizketa bultzatzea garraio-sektorearen eta kontrol-agintarien artean.

14. artikulua

Beste herrialde batzuekin dauden negoziazioak

Zuzentarau hau indarrean sartzen den unetik, Erkidegoak negoziazioak hasiko ditu beste herrialde batzuekin, Zuzentarau honetan ezarritako arauen baliokideak aplikatzeko.

Negoziazioak amaitu bitartean, Estatu kideek beste herrialde batzuetako ibilgailuei egindako ikuskapenen datuak sartuko dituzte Batzordeari bidaliko dizkioten aktetan, 3820/85 (EEE) Erregelamenduaren 16. artikuluko 2. atalean ezarritakoaren arabera.

15. artikulua

Eranskinak eguneratzea

Eranskinak jardunbide egokien bilakaerara moldatzeko egin beharreko aldaketak 12. artikuluko 2. atalean aurreikusitako prozeduraren arabera onartuko dira.

16. artikulua

Transposizioa

1. Estatu kideek 2007ko apirilaren 1ean jarriko dituzte indarrean, beranduenera ere, Zuzentarau honetan ezarritakoa betetzeko ezarri beharreko legezko xedapenak, arauzko xedapenak eta administrazio-xedapenak. Berehala jakinaraziko diote Batzordeari xedapen horien testua, eta xedapen horien eta Zuzentarau honen arteko egokitzapen-taula.

Estatu kideek xedapen horiek hartzen dituztenean, Zuzentarau honen erreferentzia izango dute xedapenek, edo erreferentzia hori izango dute ofizialki argitaratzean. Estatu kideek ezarriko dituzte aipatutako erreferentzia-motak.

2. Estatu kideek Batzordeari jakinaraziko dizkiote Zuzentarau honekin araututako eremuan onartzen diren xedapen nazional nagusien testuak.

17. artikulua

Indargabetzea

1. Indargabetuta geratu da 88/599/EEE Zuzentaraua.

2. Indargabetuta geratu den Zuzentaruaren aipamenak Zuzentarau honi egindako aipamentzat hartuko dira.

18. artikulua

Indarrean jartzea

Zuzentarau hau Europako Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeit egunera jarriko da indarrean.

19. artikulua

Hartzaileak

Zuzentarau honen hartzaileak Estatu kideak dira.

Estrasburgon egina, 2006ko martxoaren 15ean.

*Europako Parlamentuaren izenean,
Presidentea*

J. BORRELL FONTELLES

*Kontseiluaren izenean,
Presidentea*

H. WINKLER

I. ERANSKINA

A ZATIA

ERREPIDEKO KONTROLAK

Orokorrean, honako alderdi hauek frogatu beharko dira errepedeko kontroletan:

- 1) egunean eta astean gidatzen pasatako denbora, egunean eta astean egindako etenak eta hartutako atsedanak; aurreko lanaldietako erregistro-orriak, horiek ere ibilgailuan egon behar baitute 3821/85 (EEE) Erregelamenduaren 15. artikuluko 7. atalaren arabera, eta/edo gidariaren txartelean eta/edo kontrol-aparatuaren memorian tarte horri buruz jasotako datuak —Zuzentarau honetako II. eranskinean azaltzen dena betez—, eta/edo papereko inprimaketa;
- 2) 3821/85 (EEE) Erregelamenduaren 15. artikuluko 7. atalean aipatzen den garairako, ibilgailu bakoitzaren baimendutako abiadura gainditu den kasu guztietan; hau da, N3 ibilgailuen kategorian 90 km/h-ko abiadura eta M3 ibilgailuen kategorian 105 km/h-ko abiadura minutu batean baino gehiagoan gainditu den kasu guztietan [N3 eta M3 kategoriak Kontseiluaren 1970eko otsailaren 6ko 70/156/EEE Zuzentarauko II A eranskinean¹ definituta daude. Zuzentaraia motordun ibilgailuen eta ibilgailuon ataien homologazioaren gaineko Estatu kideen legeak elkarren artean egokitzeari buruzkoa da];
- 3) baldin eta halakorik bada, ibilgailuaren aldiuneko abiadurak, ibilgailua erabili baino 24 ordu lehenago kontrol-aparatuak erregistratuak;
- 4) kontrol-aparatuak ondo funtzionatzen duen (aparatuan eta/edo gidariaren txartelean eta/edo erregistro-orrietan manipulaziorik egon den egiaztatzea), edo, bestela, 3820/85 (EEE) Erregelamenduaren 14. artikuluko 5. atalean azaltzen diren dokumentuak badauden.

B ZATIA

ENPRESEN LOKALETAKO KONTROLAK

A zatian ezarritako alderdiez gain, enpresen lokaletan honako alderdi hauek kontrolatuko dira:

- 1) asteko atsedentarteak eta atsedentarte horien artean gidatutako denbora;
- 2) gidatzeko denboraren hamabost egunez behingo muga;
- 3) gidariaren txarteleko eta ibilgailuan ezarritako unitateko erregistro-orriak, datuak eta papereko inprimaketa.

Arau-hauste bat hautematen denean, komeni bada, Estatu kideek zehaztu ahal izango dute garraio-kateko eragileek —besteak beste, bidaltzaileek, garraio-kudeatzaileek edo azpikontratugileek— duten erantzukizuna, eragileak edo konplizeak izan diren, eta, horrez gain, frogatu ahal izango dute garraio-hornidurarako kontratuek 3820/85 (EEE) eta 3821/85 (EEE) Erregelamenduak betetzea ahalbidetzen duten.

—

¹ EO L 42 1970.2.23koa, 1. or. Azken buruan Batzordearen 2006/28/EE Zuzentarauak (EO L 65 2006.3.7koa, 27. or.) aldatu zuen Zuzentaraia.

II. ERANSKINA

Kontrol-unitateen eskura dagoen ekipo estandarra

Estatu kideen ardura izango da I. eranskinean azaltzen diren lanak egiten dituzten unitateek honako ekipo estandar hau izatea:

1) ibilgailuan kokatutako unitatetik eta takografo digitaleko gidariaren txarteletik datuak transferitzeko, datuak irakurtzeko eta datuak aztertzeko ekipoak edo datuak aztertzeko datu-base zentral batera transmitituko dituzten ekipoak;

2) takografoko orriak kontrolatzeko ekipoak.

—

III. ERANSKINA

Arau-hausteak

9. artikuluko 3. atalaren arabera, Zuzentarau honi jarraiki, honako zerrendan azaltzen dira arau-haustetzat zer har daitekeen jakiteko hainbat arau:

- 1) egunean, astean edo bi astean gehienera gida daitekeen denbora gainditzea;
- 2) eguneko edo asteko gutxieneko atsedeen-tartea kontuan ez hartzea;
- 3) gutxieneko etena aintzat ez hartzea;
- 4) 3821/85 (EEE) Erregelamenduaren xedapenen arabera, takografoa ez jartzea.

—